

MOTI+BATU

Nagiak astinduz, mingaina askatuz

TOPAKETA – IRAILAK 10 eta 12

SAN TELMO MUSEOA, DONOSTIA

www.emun.eus | www.lantalan.com

IRAILAK 10, ASTEAZKENA - NAGIAK ASTINDUZ

9:00 Harrera

9:15-9:20 Sarrera

9:20-9:45 Berrikuntza soziala eta euskararen inguruko hitzaldia. Egoitz Pomares, [Sinnergiak – Social Innovation](#)

9:45-10:15 Portaeratik jarrerara: jokabide urratzaile, egokitzale eta eragozleak. Pello Jauregi, EHUKo irakaslea

10:15-11:15 Taldekako lehen saioa. Parte hartzaile bakoitzak talde batean parte hartuko du

1. taldea: Inguru hurbilean eragiteko bideak

Euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dutenei pausoa ematen laguntzeko, euren inguru hurbileko pertsonen portaerak gakoa dira

Bideoa (8'): Iñaki Martinez de Luna, EHUKo irakaslea

Dinamizatzaileak: Aintzane Zabala, Emun eta Maite Barreña, Arrasateko Emakume Txokoa

2. taldea: Disonantzia egoerak: esatetik egitera dagoen tartea

Esatetik edo pentsatzetik egitera dagoen bidea aztertu nahi da. Euskara maite dut, euskaraz egingo dut bihartik aurrera... baina biharko eguna iritsi eta...

Bideoa (15'): Joxpi Irastortza, Mondragon Unibertsitatea - [HUHEZI](#) - Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Dinamizatzaileak: Nerea Arrese, Emun eta Miren Seguro, [UEMA](#)

3. taldea: Zuzeneko ekintzak: pentsamenduan eragin, portaera aldatzeko.

Pertsonen pentsamenduan zuzenean eragitea helburu dute zuzeneko bidean kokatzen diren ekintzek (adibidez, hausnarketa saioak). Zein dira horien arrakastarako gakoak? Zeharkako motibazio kanpaina orokorrekin (lehiaketak, kartelak...) osagarri izan daitezke?

Bideoa (5'): Urrate Etxaburu, Emuneko teknikaria

Dinamizatzaileak: Leire Urra, Emun eta Arantxa Zabala, [Errenteriako Udaleko](#) hizkuntza normalizatzailea

4. taldea: Sozializatzeko trebeziak: hizkuntza portaera asertiboaren ekarpena

Hizkuntza ikasten dugu, baina non-nola erabili asmatu ezinda aritzen gara. Euskaraz egoera seguruetan erabiltzen ikasi dugu, baina testuingurua zailtzen denean kikildu egiten gara. Nola ikasi euskaraz sozializatzen? Eta hori nola irakatsi?

Bideoa (6'): Larraitz Urrestilla, [coach](#)

Dinamizatzaileak: Ainhoa Lasa, Emun eta Nahia Inza, [Ttakun Kultur Elkarte](#)

11:15 – 11:45 Atsedena

11:45-12:45 Taldekako bigarren saioa. Lehen saioko gai berak izango dira; parte hartzaileek beste gai bat aukeratu ahal izango dute bigarren saio honetarako

12:45 – 13:15 Taldeetako ondorioen aurkezpena

13:15 – 13:20 Bukaerako agurra

IRAILAK 12, OSTIRALA - MINGAINA ASKATUZ

9:00 Harrera

9:25-9:30 Sarrera

9:30-10:20 Mahai ingurua: euskara ikasten ari direnak erabiltzen hasi daitezten laguntzeko, zer egin dezakegu?

Parte hartzaileak: - [Elkarlan](#) euskaltegiak, euskara irakaslea
- Larraitz Madinabeitia, Emuneko trebatzailea
- Nekane Duran, mintzalaguna

Dinamizatzailea: Joxean Amundarain, Gipuzkoako Foru Aldundiko [Euskara Zuzendaritza Nagusia](#)

10:20-11:20 Taldekako lehen saioa. Parte hartzaile bakoitzak talde batean parte hartuko du

1. taldea: Hitz egiten hasteko laguntza: legitimitatea sentiaraztea

Dirudienez, euskara ikasten ari denak edo hiztun berria denak hiztun gisa legitimitatea sentitzen badu, euskaraz hitz egiteko pausoa errazago emango du. Zer egin dezakegu horrela sentitu daitezen?

[Bideoa](#) (7'): Estibalitz Amorrortu, [Deustuko Unibertsitatea](#)

Dinamizatzaileak: Elias Zumalde, Emun eta Pablo Suberbiola, [Soziolinguistika Klusterra](#)

2. taldea: Elkarrizketa elebidunak: nik euskaraz eta zuk erdaraz?

Euskara ulertzeko arazorik ez dagoenean, bi hizkuntzak erabili ditzakegu elkarrizketa berean. Ulermena ziurtatzean dago gakoa. Lagunartean... lan bileretan... nola egin arrakasta izateko?

[Bideoa](#) (5') : Juanjo Ruiz, Emuneko teknikaria

Dinamizatzaileak: Kristina Pavo, Emun eta Elena Mendia, [Pasaia-Lezo Lizeoko](#) zuzendaria

3. taldea: Ikaskuntza prozesuan sentsibilizazioa eta hizkuntza portaera lantzearen garrantzia

Euskara erabiltzen hasteko gakoa izan daiteke euskara ikasteaz gain, motibazioarekin lotura zuzena duten alderdiak lantzea

[Bideoa](#) (13') Carles de Rosello, [Santa Coloma de Gramenet](#)eko hizkuntza normalizatzailea

Dinamizatzaileak: Txerra Rodriguez, Emun eta Aitziber Gurutzeaga, [Bagera](#) Donostiako Euskaltzaleen Elkartea

4. taldea: Berariazko trebakuntzaren arrakastarako gakoak

Funtzio jakin batzuk betetzeko edo helburu zehatzak lortzeko trebakuntza saioak antolatu ohi dira. Zer hartu behar genuke kontuan, ikasteaz gain, ikasleek erabiltzeko pausoa eman dezaten?

Bideoaren [laburpena](#): Ander Zuloaga, [Donostia Unibertsitate Ospitalea](#). Bideoa talde honetan parte hartuko dutenei baino ez zaie bidaliko.

Dinamizatzaileak: Naiara Etxeberria, Emun eta Arkaitz Zarraga, Basauriko Udaleko euskara trebatzailea

11:20 – 11:50 Atsedena

11:50-12:50 Taldekako bigarren saioa. Lehen saioko gai berak izango dira; parte hartzaileek beste gai bat aukeratu ahal izango dute bigarren saio honetarako

12:50 – 13:20 Taldeetako ondorioen aurkezpena

13:20 – 13:30 Bukaerako agurra